


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2012KO URTARRILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek ez dute aldaketarik izan (% 0,0) 2012ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2011ko urtarriletik 2012ko urtarrilera) eraikuntzaren kostuak % 1,0 igo dira.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea: EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzaren kostuen indizeak ez du aldaketarik izan 2012ko urtarrilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 1,0 igo da.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza urtarrilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko urtarrilean, eskulanaren eta lehengaien kostuek ez dute aldaketarik izan (% 0,0).

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuak bilakaera ezberdina izan du urtarrilean; aurreko hilearen aldean % 0,1 murriztu dira eraikuntzako kostu horiek eta % 0,7 igo dira obra zibilaren kostuak. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez ere, bilakaera ezberdinak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuak % 0,7 igo dira, eta obra zibilekoak % 3,4.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, petrolioaren birfinketa (% 17,8); energia elektrikoa eta gasa (% 9,0) eta industria kimikoa (% 6,2) sektoreak izan dira. Bestalde, urteko prezioetan beherapenak izan dituzte (2011ko urtariletik 2012ko urtarrilera) hurrengo sektoreetako lehengaiak: metalurgia (-% 2,0), material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (-% 0,7) eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (-% 0,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO URTARRILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,5	0,0	1,0	0,0
ERAIKINAK	119,3	-0,1	0,6	-0,1
OBRA ZIBILA	125,0	0,5	2,4	0,5
LEHENGAIEN KOSTUA	120,0	0,0	1,3	0,0
ERAIKINAK	118,5	-0,1	0,7	-0,1
OBRA ZIBILA	125,8	0,7	3,4	0,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	0,0	0,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.](#)

[Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.](#)